



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

LEAk espedientea ireki die Gipuzkoako bidaiarien errepideko garraioko eragile batzuei.

LEAk espedientea ireki die 25 enpresari, Aldundiari eta AVITRANS enpresa-elkarteari, Gipuzkoako autobusen bidezko garraioko sektorean lehiaren aurkako jokabideak ustez egiteagatik

Bilbo, 2016ko maiatzaren 13a

Bidaiarien errepideko garraioko zenbait enpresatan joan den abenduko ikuskapenak burutu eta gero, LEAk prozedura bat hasi du sektoreko 25 enpresaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta AVITRANS hiriarteko garraioko enpresa-elkartearen jokabideak aztertzearen.

Zehapen-espediente bat irekitzeak ez du nahi esan amaiera dagoeneko erabakita dagoela. Hasiera-datatik 18 hilabeteko epea dago LEAk espedientearen instrukzioa egin eta ebazteko, instrukzioan epea etetea ebazten ez bada.

Espedientean daudenak honako hauek dira: ALUSTIZA BIDAIK, S.L.; ARTEONDO AUTOBUSAK, S.L.; ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DE TRANSPORTES INTERURBANOS DE GUIPÚZCOA (AVITRANS); AUTOCARES AIZPURUA, S.L.; AUTOCARES ALDALUR ANAIK, S.L.; AUTOCARES DIEZ, S.L.; AUTOCARES IPARRAGUIRRE, S.L. (IPARBUS); AUTOBUSES GARAYAR, S.A.; AUTOBUSES LA GUIPUZCOANA, S.L.; AUTOBUSES URBANOS IRÚN FUENTERRABÍA (AUIF); AUTOBUSES INTERURBANOS, S.A.; BENGOTXEA AUTOBUSAK, S.A.; COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA, S.A. (TSST); EKIALDEBUS, S.L.; ESCUDERO HERMANOS, S.L.; EUSKO TRENBIDEAK, S.A.U.; GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (MUGIKORTASUNEN ETA GARRAIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA, MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAKETA); GOIERRIALDEA, S.L.; GOIERRIBUS, S.L.; GURE BUS, S.A.L.; J. APAOLAZA AUTOBUSAK, S.L.; HERRIBUS, S.A.; HIJOS DE AREIZAGA, S.A. (HASA); TOLOSALDEA BUS, S.L.; TRANSPORTES PESA, S.A.; ULACIA BIDAIK, S.L.; UNITRAVEL, S.L.



LEAk daukan informazioa aztertuta ondorioztatu egin da LDLren 1. artikulua arau-haustearen arrazoizko zantzuak badaudela. Arau-haustea hauxe da, ustez: Gipuzkoako bidaiarien errepideko garraioko —modalitate guztietan— merkaturaren banatzea eta horren prezioak adostea.

LDLren balizko arau-haustearen zantzuak —espediente hau irekitzera bultzatu dutenak— eta horien kalifikazioa behin-behinekoak dira. Instrukzioan erabakiko da euren izaera.

Kartelak direlakoan ikerketa LEaren jardueraren lehentasunetako bat da, kontsumitzaileengan eta merkatuetako bidezko funtzionamenduan duten eragin larriarengatik. Horretarako, beste tresna batzuen artean, Errukitasun Programa dago. Horrek ahalbidetzen die kartel baten partaideak diren enpresei isun-ordainketa salbuestearen onurak jasotzea, kartelei antzemateko frogak aurkezten baldin badituzte.

http://www.competencia.euskadi.eus/z02-contprof/eu/contenidos/informacion/isun_ordainketa_salbuespena/eu_exen_pag/index.shtml

Lehiaren Euskal Agintaritza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde- eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduerak ekonomikoari dagokienez.